

Esku-langintza, bere aldaketak eta arauak

SARRERA

Esan dezagun sarrera-gisa, esku-langintza aztertzen dugun ontan, etnografiako ikerketa egin naiean aztertzen dugula batez ere. Adibidez, *uztarria* edo *buztarrixe* aztertzen dugunean, ez dugula artzen emen ormetako apaingarri denez, edo-ta jantziak zintzilik ipintzeko erabiltzen denez; emen aipatzen dugunean, abereak lanerako uztatzeko erabiltzen dana adierazten dugu; eta berdin, *argizaiola* esatean ere, izenak dionez, eskubildua edo argizagia bildurik elizan sepultura ordeko zapi beltzaren gaiñean erretzen edukitzekoa adierazten dugu, eta ez apaingarrizat ipiñi oi dan gauzatxo polita denez.

Esku-langintza idazten dudanean, batez ere eskuz edo eskuen bidez egingdako lana adierazten dut; eta lanbide ontan, gizakia bera dugu lenengo, lan tresna bigarren mailan dalarik. Bestalde, euskal esku-langintzaz ari geran ontan, oso gogoan edukitzekoa da, noski, non-naiko gizakiak bear berdiñean aurrean, erantzun berdiña edo berdintsua ematen du, non-nai ere antzeko irtenbeak artuz. Gure baserritarrek asko erabiltzen duten *lera*, adibidez, ez da gurea bakarrik, antzekoak erabiltzen bai-dituzte emendik urrutira ere gauzen eraman-ekarrirako. Adarretakoa da gure uztarria; baiña emendik oso urruti ere ba-dira lanerako abere adarduneri beren adarretan lotzen dizkietenak. Emen aipatuko dugun *esku-langintza* euskalduna dala esatean, ez dugu ukatzen euskalduna danik, baiña aldi berean ez da gurea bakarrik, zenbaitetan beintzat.

ALDAKETA - AURRERAPENA

Askok bestela uste ba'dute ere, esku-langintzak beti aurrera jarraitu du, batzutan garrantzi aundirik gabeko aldaketak egiñez eta urrengoan aundia-goak, aldiz oso geldiro ta aldiz laisterrago burutuz aldaketak edo aurrerapenak. Arako grezitar Heraklito'rena gertatzen da esku-langintzan ere: «Ezer ez egonean, dana joanean».

Aldaketak sortutako makina dugu kiloa edo murkilla. Eskuz eragindako anezka beti pixkabana aldatuz joan da bere mugen barruan. Onela, goitik beerakoa izatetik, zearkakora egin zuan aldaketa bat anezkak.

Zearkako edo etzaneko eungintza edo oialgintza ejiptorrek asmatua dala diote, Jesukristo baino 1500 urte leenago gutxi gora-beera. Onen alderdi berezia ontan dago: ariak beren luzeran irazteko edo bilbatzeko makinak darabilkian aldizkako eragiñak edo atzera-aurrerak. Eta urteen joanean, aurrerapen au ere ez da leengoan gelditu; erosoago ta laisterrago lan egitera iritxi da baizik.

Argizaigilleak eramapenik aundienaz burutu oi zuan bere langintza aspaldi artan, algodoizko metxa gertutu ta gero argizagiz bildmena e.a. egitekoan. Orain ez du berak metxarik egiten eta ezkogintza bera ere gal-zorian da.

Langintza berari jarraituz, esan dezagun kandelak eta zuziak ere egin oi zituztela: argizagi urtua antoxiñean artu ta metxari gaiñera bein eta berriz ixuri oi zioten, kandelak naiz-ta zuziak bear zuan lodiera artu arte. Azken-aldera utzi zuten lan-egikera ori ta metxa bera sartzen zuten ontzi aundia-goan, an artu zezan bere lodiera.

Mende onen asieran bertan ba-zan Durango'n iltzegille bat bere lanerako, tresna auek besterik etzuana: ingude edo txingura bat, burni-guraize bat eta iltze-eredu edo iltze-ontzi bat. Bizkaitar iltzegille aren garai bereko beste batek Tolosa'n, bere motzean ere aurreratuxeago izaki, ba-zuan zerbait geiago: iltze izan bear zuan gaitzat, burni-ziria landutzeko, eserleku bat antolaturik zuan, bertan neurria, ebakitzeko bear zuana, zulo berezi bat iltzekia sartzeko ta oiñ-olez eragindako mailluz burua eratzekoa. Irudia ikusiz gaiñera, aixago ulertzen da langintza onen aurrerapena.

Era berean, gazta-gintza ere aldatzen doa artzai-txabola txikiaren barruan. Emen aipatuko ditudan artzaiak, Urbia'koak dira, auen langintza aztertu baidut bertatik bertara; auek, bada, esnari bear bezain epel iraun-erazteko, ur epeletan sartzen dute esne-ontzia. Ez da, noski, aurrerapen arrigarria, baiña errazearen ere ez da aspaldikoa; uskeria duridian arren, mesedegarri gertatzen zaie, lana lasterrago ta errazago egiten bai-dute era ontan.

Aramaio'ko gurdigilleak oraintsu egiten zituan gurdi edo *burdixe* aiek ere ba-zuten aurrerapenik: *burdin-orraxiek* edo gurdi-orraxe izeneko lau ol izaten zituzten bitartean leengo gurdiek neuk Berastegi'n eta Ezkio'n eta geiagotan ezagutu ditudan bezala, *aramaioarrak* olakorik gabe antolatzen zituan.

Gurdi-orraxe oien bidez lotzen zitzaion gurdia kurpillen ardatzari, alde bakoitzen bi orrazek eltzen ziola. Aramaio'koak, berriz, zurezko orrazeen orde, burni-zerrenda biurri bana alde bakoitzean eta mutturretan tornilloz lotuta.

Burni-olarik aspaldikoenak, mendian bertan izaten ziran, beren eginkizunera tokirik egokienean: batetik, burnia ateratzen zuten mea-tokitik gertu eta bestetik, sutegirako ikatza egin oi zuten *txondarra* zegon lekutik urbil, alegia.

«(...); en lo antiguo es muy cierto se fabricaba el hierro a fuerza de brazos, moviendo los fuelles los hombres, y batiendo con martillos las fundiciones, que hacían, que precisamente serían pequeñas: ponían sus fábricas en Montañas, y qualquier parage, que fuese acomodado para carbón; de que oy ay vestigios (...)»¹.

Asierako burni-ola txiki ta atzeratu aiek, bukatu egin ziran pixkabana, erreka ta ibai-ondoetako ola aundiagoak sortu ziranean.

«He llegado a entender que por más providencias que se han tomado a fin de que los ferrones de esta villa fabricasen hornos para la calcinación de la vena por los perjuicios que ocasiona a los montes de esa Parzonería el método de calcinarla con troncos de árboles cortados por pie, sólo ha sido V.M. el que ha puesto en egecución esa útil idea siguiéndose todavía por los demás la costum-bre antigua (...)»².

Ur-ola edo uraren eragiñez lan egiten zuten olaetako gauzarik garrantzizkoenak, auek ziran: ubidea edo antepara ura eramateko, azania edo ur-kurpillak beren ardatz agindunekin, maillutzarra, auspoak, sutegia, txingude edo txingura.

Antepirako ura neurria erabiltzeko, txinbo edo eskuila itxi ta idekiz neur-tzen zuten, eta *gezur-aska* edo *guzur-aska* zeritzaion zirrituan beera erortzen zan ura, ur-kurpillatara; uraren eragiñez ibillian asten ziran kurpillak eta auen bultzadaz baita maillutzar edo gabia ere gora ta beera asten zan, eta auspoak ere bai aize-ematen asten ziran. Kurpilla auek izen bereziak zituzten, *erruedak*, *errobadeak*, *karramak* eta auek beren ardatzean zituzten agiñek ere ba-zituzten izenak: *mazo-kabi*, *matxukarri*, *mazukero*, *maisukari*; kurpilla besodunak, urak jotzean, ibillian asten dira ta beren ardatzetako agiñez ibillian jar-tzen dituzte bai auspoa suari aize-ematen eta bai gabia ere txingura gaiñean «tiriki tauki, tauki, malluaren otsa...».

Burni-ola guztiak aurrerapen eta berrikuntzaren menpe biziziran, lana erraztu ta ugartizearen billa. Ona emen adibide bat, aurrerapenak ulertzeko, 1806'gn urtekoa da:

«Sobre el invento para ser aplicado a ferrerías.

1. Pedro Bernardo Villareal de Bériz: «*Máquinas hidráulicas de molinos y herrerías y gobierno de los árboles y montes de vizcaya*», 43 or.

2. Kakotx artean eman dugun zati ori, Gipuzkoa'ko Probintziak artutako erabaki bat betetze-ari dagokion agiria da: Zegama'ko ola-gizonek burnikia urtzeko labeak egin zitzatela aginduz artutako erabakia, ondotik ebakitako zugaitzak sutzeko orde. «Archivo Provincial de Guipúzcoa», Sec. 2, Neg. 21, 1798'gn. urtea, Leg. 94.

El señor (...) regidor jurado de esta ciudad (San Sebastián) hizo presente a la Junta que (...) ha inventado una máquina para que las ferrerías trabajen con mucha economía de agua y que la ofrece a la Provincia.

El objeto principal de esta máquina consiste en hacer que las ferrerías trabajen con la mitad de agua que el presente, haciendo que una misma rueda ande a un tiempo tres fuelles o barquines y dos mazos, en lugar de que en el método actual los barquines y dos mazos necesitan tres ruedas, y por consiguiente mayor cantidad de agua, que la sola rueda en la nueva máquina (...)»³.

METALAREN ESKU-LANGINTZA

Zura, burnia ta arria eraldatzen dituan lanari, esku-langintza aundia esan oi zaio, edo esku-langintza nagusia, eraikintza aundietan ageri izan dalako. Begiratu besterik ez dago zenbait elizari ta bestelako eraikintza aundieri; eta or ditugu gure aspaldiko baserriak ere, zeaztasun eder ugariz ornituak.

Burnia

Burnia erabilliz burutu izan diran esku-lan guztiak izendatzea bera ere neurritz gorakoa da idazlan onen mugentzat: batetik baserri ta kale-etxeetako burnidura edo burni-lanak mutur batean, eta bestetik damaskintza lan bitxia beste muturrean, batez ere eibartarrek burutu izan dituzten lan zoragarriak, ain zuzen ere euskeraz *eibar-lan* esateraiñoakoak. Metalkien esku-langintzak, eta burniarenak batez ere, burni-ola ain ospetsuak aipatzera garamazki; olagizonak ere, azkenean, esku-langille bai-ziran. Burni-olen goi-maillak XVI, XVII ta XVIII'gn mendeetan izan zirala esan dezakegu. *Ola* auen aldi berean eta aieri loturik ugaritu ziran ontzigintza, aingura-gintza ta izkillu-gintza.

Aingurak

Aingurak guztiz aspaldikoak dira, eta, jakiña, asierakoak arriz eta egurrez egiñak, noski; beren izena *arrankilla* zan lenengoetan. Ezin ukatu, ontzigintza ta aingura-gintza elkarri loturik sortuak diranik. Bein baiño geiagotan esan izan dut, artzai-irudirik ez dala gure buruan sartzan bere makillarrik gabe; era beretsuan, bada, itsas-ontzirik ere ez daiteke aldi berean arrankilla ta geroagoko aingurarik gabe.

Batzuetan esku-indarrez eta geroago ur-indarrez eraginda ibiltzen zan *gabia* izeneko maillu aundia, arek joka landu zezan burnia. Orrelaxe joka lantzen zituzten ainguraren zangoa, gurutzea ta txirrindola. Gai au ukitzean, ipuin bat datorkit burura: itsas-gizonak, aingurak egitekoan, txangurruaren antzera egiten asi omen zirala.

3. Arazo oni buruz, zabalago mintzatzen naiz «*De Etnografía Vasca (Cuatro Ensayos), El Caserío - Ritos Fúnebres - Galera del boyero - Las Ferrerías*», liburuan 153-156 orrialdeetan.

Aita Larramendi ospetsuak idatzi zuenez, *zearroak* edo ola aundiak guztiz bearrezkoak ziran aingurak egitekoan, bakoitza berrogei kintaleko pixudunak ziralako; aingura txikiagoak egitekoan, berriz etzan ola aundien bearrik⁴.

Aingura-gintzak garrantzirik aundiena XVIII'gn mendean lortu zuan, Gipuzkoa'ri dagokionez beintzat. Eta aingura-gintzan lan guztiz berezia egin zuan Gilisagasti ayarrak.

Gilisagasti'tar Juan Fermin, tamalez naiko ez-ezaguna zaigu giputz geranori, bai bere bizitzari ta bai bere ekintzari dagokienez. Gure artean berak lortu zuan lenengoz aingura aundiak egitea: 1739'gn urtera arte Holanda'tik ekarri oi zituzten aundiak, 79 kintaleko aingurak.

«(...) V. Para ello estuvo ocultamente en Olanda, aprendiendo el mecanismo de esta Fábrica; y sin concluirlo, tubo que escapar, quando se penetró su designio, porque corría riesgo su vida; pero de allá trajo, y estableció en su Obrador el Pescante mayor, con que se manejan las de magnitud; el Mazo grande de 18 a 20 arrobas de peso para hacer la unión de los brazos; el uso del Carbón de piedra, cuya actividad es indispensable para la firmeza de las soldaduras de ellos; el conocimiento del temple de éstas, y algunas otras cosas conducentes a la perfección y economía de su Obra (...)»⁵.

Aya'ko Santiyo auzoan eta «Arrazubi-Olazabal» baserriaren atzean oraindik ere an daude erdi-erorita Gilisagasti'tar Juan Fermin ola-gizon ospetsuaren ola aundiaren ondakiñak.

Aizkora

Euskalerrian garrantzi aundiko sutegi-lana izan da aizkoragintza. Aizkora dugu, izan ere, euskaldunak aldirik aspaldienean asita gaur arte erabili izan duan lanabes edo lan-tresna. «Aizkora itxean eta kertena basoan, eztaukazu arturik senarra besoan»⁶.

Lanerako tresna izateaz gainera, aizkorak ba-ditu beste zenbait alderdi gure artean, batez ere nekazarien bizitzan: batetik apustueta eta bestetik gure euskal-mitolojia. Gaur bertan ere ba-ditugu aizkora-gintzako sutegiak Leitza, Ezkio ta Urnieta'n, aldaketa ta berrikuntza aundirik gabe jarraitzen dutenak.

Tolosa'n izandako aizkora-gintzari dagozkion zeaztasun batzuk eman nai ditugu emen, askorentzat arrigarriak: batetik, gaur arte argitaratu gabeko agiria dalako, baiña bestetik Gipuzkoa'ren uri-buru zaarrean izandako langintza dalako.

4. Manuel de Larramendi: «*Corografía de Guipúzcoa*» - Edición 1882, 66. or.

5. Juan Antonio Enríquez: «*Memoria sobre las fábricas de anclas, de palanquetas, de batería de fierro, la fundería, y otros establecimientos en la Provincia de Guipúzcoa*» - Año 1787 - San Sebastián.

6. Resurrección María de Azkue: «Aizkora itsean» en el «*Cancionero Popular Vasco*» - «Séptimo grupo-Epitalamios», 6-8 or.

«En esta villa de Tolosa a veinte y nueve de abril de mil ochocientos y quatro ante mí el escrivano Real y del número de ella y testigos Dn. Joaquín Francisco de Arrivillaga, maestro armero de la misma vecindad; bajo de juramento voluntario que prestó a Dios Nuestro Señor sobre una Señal de Cruz en forma debida de dro. dijo y declaró: que de orden y comisión de D. Martín de Udave vecino también de esta indicada villa, ha trabajado ciento y cincuenta achas de cortar, con hierro tirado en la ferrería llamada de Amaro, y azero fabricado en la de Pisua, ambas en jurisdicción de esta significada villa, cuyas achas son de peso de quatro y media a cinco libras, y tienen todas la marca del apellido del declarante, y están colocadas en tres cajones (...)»⁷.

Joareak

Artzantzari loturik irauten dute sutegiak eta ingudeak ere, yoarea ta zintzaria egiteko bearrezkoak diranez.

Yoarea ta zintzarria abereen leporako dira batez ere. Baiña izan ditu ta oraindik ere ba-ditu beste eginkizun batzuk.

Guda-ekintzetan ere aipatu izan dute yoarea antziñate aspaldian. Gudako berri ematekoan, onelatsu adierazten digute: alde bietako gudariak borrokatzean, *yoareak mututurik* joaten zirala.

Siniskeri ta mitoloji maillan ere ba-du yoareak bere aalmen berezirik. Azkue'tar Resurrekzion Maria'k idatzirik duanez, yoarearen ota naikoa da deabrua edo gaizkillea inguruetatik uxatzeko. Ba-dira esaera zaar bitxiak ere: «ardiek txabolan beren yoareeri eragiten ba-diete, elurra biaramonean»; eta «zaldiek yoarerik astintzen ez ba'dute borda barruan, are-ta elur geiago».

Dantzari batzuek ere erabilli izan dute zintzarria, koskobilloen antzera; geienetan, ordea, *toberak* diranean bezalatsu, alargunen bat ezkontzen danean erdi-isekaz noski.

Iñauterietan erabilli izan dute ta astindu yoarea, besteak beste. Nekazarien arteko Iñauterietan erabiltzen dituzte, batez ere, yoarea, aurpegi-ordekoa ta txantxo edo mozorro-jantzia, abereren baten antzera gizakia itxuraz aldatzeko.

Artzaiengana biurtuz, esan bearrekoa dugu, yoarea naiz zintzarria aukeratzetan, *soiñu* berezikoak nai izaten dituala artzaiak, bere abereak urrutira erraz ezagutu ta berezi aal izan ditzan.

Ontan ari geranez, Arantzadi jakintsuak edesten digun auzia gogorazi nai dut emen. Bei bat norena zan erabakitzeke auzitegian, yoare-otsa bereiziz egin bear zuten aitorpena testiguen eta... tobera edo zintzarroska biurtu zuten auzitegia.

7. Archivo de Protocolos de Guipúzcoa (Tolosa). Leg 704, fol. 27 - 1804 urtean.

Buztingintza

Aspaldikoa da buzingintza. Neolitos edo Arri-aro berriaren aldikoa dala esan bear. Buztiña eskuarteetan landu ta tankeratzeak, leenago ez bezalako ontziak bere esku izateko egokiera eman zion antziñako gizakiari.

Buztingille edo eltzegilleak ez du lur-axalean aurkitzen buziña: barruraxe-ago zulatu bear izaten du, buztin ona ateratzeko, zentimetro batzuk barrura geinetan. Lenengo buzingille aiek dana eskuz landu bear ko zuten buziña, baiña gerora, urteen joanean, asmatu zituzten tresna lagungarriak ere: adibidez bilgin edo tornua, buziñari biraka erabilliz bear dan tankera ematen diona. Onela, bada, tornuan biraka dabillen bitartean ematen dio ontziari nai dan neurria, nai dan itxura. Ontzi bakoitzari bere egitura eman ondoren, labera sartzen du ta antxe beroaren beraz egosten da, erretzen da buziña.

«Erri-lagunen Ekonomi-bazkunak» egindako agerpenetik, buzingintza ta tellagintzari dagozkion zatiak aukeratu ditut.

«M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa Señor

Los nombrados por V. S. para conferir sobre los quatro últimos puntos de convocatoria y los demás que se ha servido de encomendarme, tenemos por conveniente hacer presente a V. S., para nuestro descargo, lo siguiente:

Que para el establecimiento de fábricas de alfarería, haga la Diputación reconocer el terreno por persona inteligente de su satisfacción, y tome después las demás providencias correspondientes a la erección de ellas, procurando quitar a los naturales la aprehensión que tienen de que semejantes oficios desdican de la nobleza, y dándoles a entender que nada pierden por ocuparse en ellos, para ser admitidos a los honoríficos.

Que para estimular a los hijos de V. S. a trabajar tejas y ladrillos, serían medios muy conducentes, 1.º- que las repúblicas o particulares que dieran tejeras en arrendamiento, prefieran por el tanto a los naturales, igualmente hábiles, de los extranjeros. 2.º- que, cuando en falta de aquellos hubiere de valerse de los últimos, se les precise a instruir y enseñar el oficio a número determinado de muchachos paisanos, y para animarlos en ello se les dé de balde la argoma concejil, con preferencia a otros, y la leña al precio que para las cocinas. 3.º- que las repúblicas puedan dar las tejeras sin almoneda a personas de su satisfacción, quando les pareciere ser más útil al común. 4.º- que a qualquiera hijo de V. S que se dedicare a este oficio, se le libre de todo género de impuesto, gravamen y cargas concejiles (...)⁸.

Arriaren esku-langintza

Arria ta berarekiko langintza aipatzean, ezin utzi aipatzeke argiñak eta argin-maixuak, benetan garrantzi aundiko aberastuaren iturri bai-dira Euskale-

8. Archivo Provincial de Guipúzcoa. Sección 2.ª - Neg. 21 - 1770 urtean - Leg. 72.

rriko esku-langintzari dagokionez. Eta ontan ziñez jakingarriak dira illarri boro-
bil edo arri-gizonak, Euskalerrikoak bakarrik ez diralarik ere, gure aurrekoen
eder-lanak ezagutzeko bide egokiak ditugu.

«Bide ertzeko gurutzea»

«Ain maite nuan aiskide baten
Zorigaiztoko eriotz latza
Adirazten dit sasi ondoan
Tente dakustan gurutze beltzak».

«Egun illuntsu tamalgarria
Oroitzen dit, ba, gurutze itzalak,
Ta au ikustean, ezin aztu, ba,
Ne aiskidea emen il zala!...»

«Gurutze beltza larrak artua
Bi txoritxo illak bere oiñean...
Beazunetan igeri daukat
Nere biotza une onetan...»

Garbizu'tar Jon, «Zubigar»⁹.

ESKU-LANGINTZA ZUREZKOETAN

Baserririk urrutikoenek ere garai batean baiño bide obeak dituzte, beren
etxeko ateetaraiño era-berritu dituztelako. Orrela gaur ibillirako ta eraman-eka-
rriko ba-dituzte zenbait erraztasun berri. Baiña oraintsu artekoan, gurdia izan
da mendibideak zear eraman-ekarrirako tresna nagusia mende luzeen joanean.
Ez da arritzekoa, beraz. artzai etziran nekazarien bizitzari estuki loturik iraun
izana gurdiak. Gure artekoa bakarrik ez dan oiturari jarraituz, ezta-bezperan
emaztegaiaren *arrioa* gurdian eraman oi zuten, gurdi-negar zoli ta alaiak biara-
moneko gertakizuna adierazten zualarik. Bestalde, gurdi-negar berezi onek ba-
zuan alderdi mesedegarria: bide estu ta biurritan barrena joan aiñean, urrutira
adierazten zuan ba-zetorrela, bide berean zijoanak kontuak atera zitzan eta toki
egokian itxoegin, biak gurutzatu aal izateko. «Gurdia, zaarrago ta negartiago»...
«Gurdiak, zaarrago ta negar-ots aundiagoak» esan oi du esaera zaarrak.

Gaur oraindik ere nekazari artean dabiltzan gurdiak, era-berrituak dira:
burnizko ardatza ta gomazko gurpillak dituztenez, berebillen antzekoago dira.
Beste nonbait esan dudanez, esan dezadan berriz ere, ixillak dirala gurdi
auek, ez dutela eztaietako alaitasunik eta lanaren nekerik adierazten urrutira.
Gogor eta otz biurtu dira gaurko gurdiak, ez daramate biotzik.

9. Garbizu'tar Jon edo «Zubigar» dugu bertso auen egillea.

Uztargillea

Uztargillea dugu beste esku-langille mota bat lagintza guztiz zabaldua egiten duana Euskalerrian barna; baiña abereak lanerako lotzeko uztarria aipatzen dugu emen, eta ez kanpai edo ezkillak zintzilik edukitzen dituan uztarria. Euskaldunon arteko uztarria beti adarretakoa da, osokoa edo puskarik gabea ta geienetan pago-enborretik ateratakoa. Lepagaiñean, garrondoan jartzen zaie abereeri ta adarretan lotzen. Uztarriak bere gain-aldean irudi ta apaingarri asko izaten ditu bera xixelkatuz landuak: aldiz ostoa ta landarekien irudiak, aldiz idi-buruenak, eta guztiak *begizko* deritzaion gaitzetik babesteko ustetan jarriak; auxe da gure uztarrien gauza berezietako bat. Esku onez landuak izaten dira edergarri auek. Baiña ona emen beste zerbait guztiz bitxia: arrotzen begietatik gordetzeko, ardi-larruz estalirik erabiltzen dute uztarria abereen buru-gaiñean, eta baserrian azaltzen dira esku-langillearen trebetasunak, uztarria askatzean.

Arantzadi'tar Telesforo jaunak, aspaldiko esae ra gogorazten digu: «Idiari adarretik eta gizonari itzetik», eta gero beste au esaten: galiziar, portuges, anpurdetar, italiar, eslavitar, ungaritar, errumanitar, grezitar, asiatar eta afrikatarrek ez dutela uztarririk adarretan lotzen. Penintsulan barrena, Frantzia'n, Suiza'n, Beljika'n eta Tirol'en barrena, berriz, gurearen antzera adarretakoa erabiltzen dutela.

Argizaiola-gille

Argia, bizientzat bezain bearrezko dala ildakoentzat esaten duan ustea edo siniskeria –kristautasun aurreko aztarna da, zalantzarik gabe–, indar aundiakoa izan da aspaldidanik gure artean. Orrela, gure elizetako arlosa gaiñean edo-ta zurezko zoruan, garai batean egiazko illobi ta gaur illobi-ordeko diranetan pizturik ikusi izan dugu argia. Ortarako egiten zuten argizagi edo ezkoa, batzutan ori-gorrixka ta bestetan zurixka, aundixeago naiz txixixeago, bildumen egiñik elizkizunetan piztutzeko. Gure argizagille edo ezkogilleen esku-langintza zan ori ere ertzerri.

Argizaiola izeneko olean bildu oi zuten argizagia ta *oolekoa* esan izan zaio. Eta *argizaiola* bete-beteen elizkizunetarako da, argizagia bertan bildurik animen argitarako edo ildakoen laguntzarako erretzen edukitzeko. Aldiz dotorezi gutxiko ol txabala da *argizaiola*, naiz lau anakoa ta naiz bestelako; eta aldiz, bi muturretan esku-lan egokiz landua, argizagia biltzeko tokia izan ezik.

Eta *argizaiola* dalakoaren alboan askotan ikusi izan dugu ezko-mutil edo argi-lekua, kilo bana baiño geiagoko kandela aundiak zulotan sartuta edukitzekoa: antxe kandela lodiak muturrean burni-orizko txapelaz ornituak, pizturik argi motela emanez erretzen.

«Beste erri bat ere ikusi genduan mendi-egalean kokatua, bola-jokuko birla erorien antzera zegona; iritsi giñanean, ildako emakume baten illetak ospatzen ari ziran eliza zaarkituan. Euskalerriko oitura danez, emakume belaunikatu bakoi-

tzaren aurrean eta zapi beltzaren :gaiñean, argizagi bildumenak erretzen, buruak beetik goruntz argitzen zituztela: argizagien argi apalak nabarmendu egiten zituan emakume buru-makurren aurpegietako zimurak eta bekoki dizdiratsuak eta esku bilduak errosarioa zintzilik. Jaiera sarkorra zan benetan.

Elizako zorua zeoro izkutatzen zuten ainbeste gorputz illun eta beeruntz makurtuek...

Aaztu eziñekoa, bestalde, abesti ez-berdin ta organorik gabeko ura, ordu luze-etako jardunean; eskari luze ta doiñu bakarrekoa, geldia, eztarri-otsezkoa, erriko abestaldearena baiño goibelagoa oraindik apaizaren eztarria»¹⁰.

Artzaien esku-lanak

Artzaien txabolari loturik irauten duten zenbait tresna berezi izendatuko ditugu emen: kaikua, oporra ta abatza, ontziak dira irurak eta bakoitza puska bakarrekoa, zurezkoak noski; malatxa, esne gatzatua naasteko, leen zurezkoa ta orain metalezkoa; *zimitze*, *zimitza* barruan gazta estutu ta tankeratze-koa; abatzaren gaiñean alderik alde ipintzen duten *txurka* zuloduna, onen gaiñean jarritako zumitzean gazta estutzeko.

Oinetakoak

Abarketa, Espartin

Abarketa-gintza edo espartin-gintza ez da gaur onezkero esku-langintza: mekanikaz orniturik, industri-lan biurtu da. Oraindik ere, ordea, erriren batean ikus genezake abarketa-gille bat edo beste, antxe etxe-atarian bere bakar-lanean, bere aldera makurtutako zurezko aulkian eta eztena eskuan duala.

Zoru edo azpia egiten du esku-langilleak lenengo, *yute* izenekoa txirikor-datu edo iru-biurtuz; orrenbestez, egiñik du irazia. Txirikorda edo trentza ori bitarikoia izan oi da: barruan bi ari gurutzatu gabe dituanean, *animadun* deritzaiona bata, eta ari gurutzatua duanean, *anima gabea* bestea. Ondoren, erdi aldea lotu ta josi egiten du dana. Zorua egindakoan, oiala erasten dio, barru aldetik eta kanpotik josten diolarik. Azkenik, galartzu edo lokarria ipintzen dio. Oiala ta lokarriak, biak ere algodoizkoak izan oi dira.

Abarketa-gille urtetsu bat datorkit burura: Mujika'tar Juan zan esku-langille au, Albiztur'koa zan bera ta erri ortan eman zuan ia osorik bere mundualdia.

Adiskidetasunik ere ba-nuan Mujika'rekin, erriko bizargille ta sakristau izateaz gaiñera, olerkari ere izan zanarekin eta berari zor dizkiot bertso auek:

10. Emile Verhaeren. Darío de Regoyos: «España Negra», 27-29 or.

1

Alpargata zoruak
urditu eta josi...
eskuz egiten nuan
aspaldi ikasi.

2

Anima-dun trentza ta
anima gabea...
josten zaillago baiño
au askoz obea.

3

Anima gabe trentza,
gizona animakin,
iraunkorrago dira...
nai ba'dezu jakin.

4

Gizaldi onen asieran
Azkoiti'n geienak,
alpargata egiten
eskuz zekitenak.

5

Orain aulkit'eztenak,
noski, erdoituta...
orduko egun ayez
ez nago aztuta!

Abarkagintza

Ortxe berrogei bat urte bitartekoan, artzaien eta baserritarren oiñetakorik erabilliena, batez ere ain ugari diran eguraldi euritsuetarako. Iaruzko abarka izan da. Aymeric Picaud, ibiltari arrotzak, XII'gn mendean, zurratu edo landu gabeko Iaruzko abarkak ikusi zituala aitortzen du: «Así los hombres como las mugeres usan comunmente en quasi toda la Provincia el antiquísimo calzado de las 'abarcas', y fuera de los días festivos rara vez de zapatos», dio Landazurik¹¹.

«En vez de zapatos lleva suelas de cuero de todo, que sólo tienen un pequeño borde arqueado y se atan con cuerdas, las 'aharcas' de que ya se hace mención en los más antiguos tiempos»¹².

Leitza'ko «Unaienea» baserriko Eguzkiza'tar Domingo ola-gizonak bere kontu-liburuan, ona zer-nolako oarra dakarren:

11. J. J. de Landazuri y Romarate: «*Historia General de Alava*» - Tomo I, p. 155.

12. Humboldt: «*Los vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*». «Auñamendi» Sorta - Z. 103, 118 or.

«Miguel de Zubiri, pastor, se entró a servir a razón de 20 de soldada, una camisa y medio cuero de baca para abarca por año, él día primero de Diciembre de 1773».

Gure abarka, beikiaren larru-pusketa bat besterik ez da. Beiki larrutu berriaren larrua, osorik erasi oi du *abarkagilleak* eta berak garbitu ta legortuko du; beste gabe prest izango da abarka biurtzeko. Abarkagintzan bearco dituan tresnak auek dira: zurezko tresna bat, larruari illea kentzeko; zurezko orma batzuk, abarkari bere egitura emateko; *urkilla*, *sarde*, *matxarda* bat, aiztoa, eztenak, guraizeak eta zurezko malluxka.

